



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA: ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERA, 2020/06/08

2020ko kanpaina honetako egoera txostenen sortari ekingo diogu, kanpainaren hasiera berrikusita.

2019-2020ko udazkena

2019ko urria lehorra eta beroa izan zen, eta horri esker lehenago bukatu zen mahats bilketa; aldiz, azaroa euritsua eta hotza izan zen, eta elurra goiz bota zuen mendi tontorretan. Nola ia 150 litro euro bota zuen metro koadroko, azaroa azken 50 urteetako euritsuena izan zen.

2019-2020ko negua

Negua lehorra izan zen, garaiari zegokionaren herena baino balio txikiagoekin eta tenperatura altuekin, eta azaroaren erdialdean, abenduaren zatirik handienean eta otsailean, erregistro altu ezohikoak egon ziren. Negu meteorologikoa egun gutxi batzuetara murriztu zen urtearen amaieratik urtarrilaren bigarren hamabostaldira arte, non hotza nabaritu baitzen.

Martxoa euriarekin hasi zen, eta negua agertzen ari zela zirudienean, berehala igo ziren tenperaturak, eta negukoak baino udaberrikoagoak izan ziren. Martxoko bigarren astean hasi ziren ernamuinak puzten, une horretan 15-20 egun inguru aurreratuta, urte arrunt baten aldean.

2020ko udaberria

Martxoaren 15etik aurrera eguraldia erabat aldatu zen. Egun batzuetan tenperaturak behera egin zuen, eta euri eta elur prezipitazioak izan ziren; hartara, mahastia gelditu eta bere eboluzio fenologikoari begiratuta bere onera etorri zen.

Apirila udaberriko ohikoa izan zen euriari dagokionez, baina tenperatura oso beroak eta zenbait egun hotzak izan ziren hilabete hasieran eta amaieran. Apirilean, zeina hilabete kalteberagoa baita mahastiarentzat izozteei dagokienez, zorionez tenperaturak ez ziren jaitsi zero gradutik behera.

Udaberria hasi zenetik hona, prezipitazioak ohikoak ia halako bi izan dira, eta neguko defizita sobera berreskuratu da. Tenperaturei dagokienez, urtaroa oso epela izaten ari da. Meteorologia hori dela-eta, zeina ur asko eta tenperatura altuak ematen ari baita, mahastietako kimuak azkar hazten ari dira, eta maiatzaren hasieran iragarritakoa berretsiz, urte zaila izango da gaixotasun fungikoei dagokienez.

Maiatzean ekaitzak sarritan izan dira, baita zaparrada ugari ere.

Maiatzaren 8an eta 9an txingorra bota zuen eta kalte handiak izan ziren Errioxa Garaiko herri batzuetan. Bastidan eta Samaniegon, zeinak hilaren 9ko gaueko harriak gehien kaltetu zituen Arabako Errioxako udalerriak izan baitziren, txingorrek zuzeneko kalte nabarmenak eragin zituen mahastietan eta eremu oso lokalizatuetan. Hasierako kalte horiei gero etor daitezkeenak erantsi beharko zaizkie, mamitzeari eragindako kalteen ondorioz, uste baita eremu zabalagoak hartuko dituela. Geroago, behin mamitzea amaitzen denean, ekaitz horiek eragindako kalteak aztertu ahal izango ditugu.

Ekaina maiatza bezala hasi da, giro asaldatuarekin, tenperatura oso altuekin eta euri ekaitzekin; hau da, mildiua garatzeko baldintza oso egokiekin, eta tratamenduak egiteko zailtasunekin, ezin izan baita tratamendurik egin lurraren egoeraren ondorioz.

Arabako Errioxako oraingo egoera

Egun, mahastizainek, batez beste hiru tratamendu egin dituzte –nahikoa laura arte– produktu ekologiko eta konbentzionalekin (sistemikoak). Hala ere, badira mahasti batzuk, gehienak Ebroko ibaiertzeko paraje sentikorragoetan (Bastida-Gatzaga, Mañueta, Eltziego...), baina baita iparralderago dauden beste eremu batzuetan ere (Navaridas, Villabuena, Guardia ...), kalte nabarmenak eta kontrolatzeko zailtasunak dituztenak. Lurra hainbat egunez urpean egon da, eta horrek zaildu egin du sartzea tratamendua eman ahal izateko. Mildiua, behin instalatuta, zaila da kontrolatzen; beraz, ezinbestekoa da prebentzioz jokatzeko.

Ekainaren 4az geroztik, tenperaturek behera egin dute, eta iragarritako prezipitazioak mugatuak izan dira Arabako Errioxa gehiengan; horri esker, mahastizainek tratamenduekin jarraitu ahal izan dute. Ekainaren erdialdera arte tenperatura baxuak mantenduko direla iragarri da, eta hori aldekoa da mildiua atsedendiren bat eman dezan; aldiz, ez da aldekoa oidioarentzat, gaixotasun fungiko endemikoa baita Arabako Errioxan, eta ez da hartaz ahaztu behar, mahasti batzuetan dagoeneko agerian baitago gaixotasun horren presentzia, ohiko tratamenduak egiten ari diren arren.

Datozen egunetan, fruitua mamitu egingo da, eta egun horiek bereziki sentikorrak dira, eta mildiua edo oidioa agertuz gero, nabarmen murriztu dezake uzta. Nola Errioxan mildiua birulentzia eta goiztiartasuna bereziki nabarmena izaten ari den kanpaina honetan, nahiz eta loraldi garaian normalean tratamenduak eten egiten diren arren prozesuari ez eragiteko, ez zaio tratamendua emateari utzi. Lurrak aukera eman duenean, traktoreekin eta ekipoeekin sartu da, eta hala egin izan ez bada, kasu batzuetan, motxilarekin.

Horrez gain, hurrengo egunetan, kimu berriak eskuz kimatzeko lanak, mahats mordoetako hostoak kentzekoak eta puntak kentzekoak egingo dira, lan horien ondorioz produktuak errazago sartzen direlako eta mahastiak aireztatzen direlako, baina kontu handiz egin behar dira, mildiu orbanak egonez gero esporak ez barreiatzeko.

Fenologiari dagokionez, Arabako Errioxan mahastia hainbat fasetan dago loraldiari dagokionez: gune garaietan eta bariatate berantiarrenetan mahastiak loratzen hasi dira, baina aurkintza eta herri gehienetan loratze betean daude, eta Arabako Errioxako eremu ekialderenean, mamituta daude (hemen "garbia" esaten zaio) tempranillo bariataterako – I1, I2 eta J egoera fenologikoak–. Udaberria hasi zenetik ur asko dagoenez eta tenperaturak neurritsuak direnez, mahastiak nabarmen garatu dira eta landaredi oparoa daukate, eta 15 egun inguruko aurrerapena nabaritu da urte normalekin alderatuz.

Uztari dagokionez, ezohiko inguruabarren ondorioz, ez da kalkuluak egiteko unea, aleak erabat mamitu arte behintzat. Mahastien mahats mordo lagina, hasiera batean, ugaria bazen ere, mahasti batzuetan ekoizpen potentziala aldatu egin daiteke mildiua, oidioaren edo beste faktore batzuen eraginez, hala nola euria, fruituaren mamitze normalean eragina izan dezakete eta.

Arabako Txakolinaren oraingo egoera

Arabako Txakolinaren eremuan, negua, Arabako Errioxan bezala, lehorra eta epela izan da, eta udaberrian ere tenperatura altuak egon dira, izotz goiztiarrik gabe eta egun askotan hegoaldeko haizea ibili delarik. Arabako Errioxan ez bezala, Aiaraldean, udaberrian prezipitazio gutxi izan da.

Egoera hori dela eta, gaur egun Arabako Txakolinaren eremuan laborea 15 bat egun aurreratuta dago, normala denarekin alderatuz. Mahastiaren fenologia bat dator Arabako Errioxakoarekin, eta aurkintza eta bariatate goiztiarrenetan, esate baterako, riesling bariatatean, ia amaituta dago mamitzea. Hondarribi zuri bariataterik ugariena da txakolinaren eremuan, eta loratze hasieran egoteaz gain fruitua mamitzen hasi da.

Osasun egoera bikainean daude. Orban isolaturen bat izan ezik, Aiaran ez da mildiurik egon. Gaixotasun hori, Arabako Errioxan oidioa bezala, zaindu egin behar da urtero txakolinaren eremuan, are gehiago datozen egunetarako euria eta tenperatura jaitsiera iragarri badira.

Uztari dagokionez, txakolinaren eremuan, garapen begetatiboa eta mahats lagina oso onak dira, momentuz.

Azken oharrak

Bestalde, covid-19 pandemiak eta ezohiko egoerak kanpaina baldintzatu dute zentzu askotan: ardo gutxiago saldu da, eta hori gehiago nabaritu da upeltegi txikietan; kanpaina honetan gehienez egongo diren etekinetan eragingo du seguru, eta Kontseilu Arautzaileak laster ezarriko ditu; mahatsaren prezioetan eragin du; zailtasunak egon dira, batez ere alarma egoeraren hasieran, udaberrian landaredian egin beharreko maneiurik lanetarako eskulana izateko, eta eskulan hori ustiategitik kanpoko langileek egin behar dute, eta gainera, mahastizainen eta kontratatutako langileen osasuna bermatu behar izan da; azkenik, etorkizunari begira, ez dakigu pandemia honek zein modutan aldatuko dituen kontsumo ohiturak eta, ondorioz, mahatsaren eta ardoaren merkatua.

Egun honetatik aurrera, eta mahats bilketa garaira arte, kanpainaren egoerari buruzko txostenak egingo ditu Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak, gutxi gorabehera 15 egunez behin.

Guardia, 2020ko ekainaren 8a

**MAHASTIZAINZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA
NEKAZARITZA SAILA**